

Magia beltza Ipar Irlandako gerran, ingelesen eskutik

Ipar Irlandan 1970eko hamarkadan militar ingelesek, indar militar bortitzez gain, eskura zituzten propaganda eta desinformazioa naro erabili zituzten Sinn Fein eta nazionalistak ahultzeko. Armadako ofizial ohi batek aitortu berri du sorginkeria eta magia beltza ere erabili zituela lekuko giroa nahastu eta herritarrek ikartzeko.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

SENTSAZIONALISTA IRUDI LUKE Londresko *The Guardian* egunkariak urriaren 9an eskainitako titulu honek: “*Satanic panic: how British agents stoked natural fears in Troubles*”, alegia “Magia beltzezko panikoa: nola Britainia Handiko agenteek zabaldu zituzten antzinako beldurak Ipar Irlandako liskarren garaian”. Debaldeko sentsazionalismo horia emango luke baldin eta ez balitz Ingalaterrako egunkari serioenak jarri duela horrerarako erabiliz soziologo eta irakasle ezagun baten liburu berria.

Londresko tropek kontraintsurgentziako borrokan sorginkerien eta esoterismoaren beldurrak nola usatu zituzten argitu du Richard Jenkins soziologoak argitaratu berri duen “*Black Magic and Bogeymen*” liburuan. Garai batean hurrei beldurra eragiteko aipatzen zitzaizkien gizon gaiztoa da ingelesez *Bogeyman*, gaztelaniaz *El coco* edo *El hombre del saco* eta frantsesez *Croque-mitaine* da. Euskaraz *Hamalau zaku* deitzen zela dio *Zehazki* hiztegiak baina umetan guri sarritan aipatzen zitzaizkigun *Zakero*, *Sakamantekas* eta abar ere.

Kontua da duela 40 urte Londresko inteligentziako agenteek Ipar Irlandan zabaldu zituztela zurrumurrurik eta albiste faltsuak haztuz deabruak hartutako jendeak, meza beltzak, sorginkeria eta

enparauak, urte haietako liskarretan indartzen ari ziren talde armatuak ahultzeko. Sheffieldeko unibertsitatean ari den Jenkinsek libururako elkarrizketatu ditu horretan aitortutako ofizialak, eta tartean armadaren *operazio beltzen* buru izandako Colin Wallace kapitaina.

Wallacek aitortu du 1972-1974ko urteetan, ingelesez *Troubles* (liskarrak) bataiatutako garaien une beroenean, iritsi zirela Belfasteko gune istilutsuetan gauez ipintzera kandela beltzak eta azpiko gain jarritako gurutzak, etxe zahar hondatuen inguruetan. Ondoren armadako prentsa ardura-dunek horiei buruzko istorioak banatzen zizkieten egunkariei, aipatuz meza beltzak, errito satanikoak eta abar, Belfast iparraldeko auzo katolikoetan edo protestanteetan gertatzen ari omen zirenak.

Militarren desinformazioak funtzionatzen zuela erakusten du *The Guardian*ek albiste hau aberasteko dakarren faksimileak: *Sunday World* egunkariaren 1973ko lehen orri bat dioena “*Black magic, fear in two border towns*” (Magia beltza, beldurra mugako bi herritan).

Britainiarrek, Wallacek dioenez, jokoa atera nahi zien eliza katolikoak eta protestanteak gatazkan zeukaten garrantziari eta Irlandan orduan ere oso bizirik zegoen sineskeriari, gatazkan ari ziren alde guz-

Ipar Irlandako argazki artxibo publikoko irudi handian militar ingelesak patruila lanean 1972an. *The Guardian*ek bere kronikan eskainitako irudi txikian, *Sunday World* egunkariak 1973ko urrian azaldutako lehen orria: “Magia beltzaren beldurra mugako bi herritan” dio titulu nagusia. Oraindik bizi den Frank Kitson jenerala izan zen britainiarrek Ipar Irlandan antolatutako gerra bereziaren buru. Aurretik ofizial bezala aritu zen Kenyan, Mau-Mauen gerrillaren kontrako operazioetan. Inperio britainiarraren domina gorenaren jabe den Kitsonek bi liburu famatutan bildu du kontraintsurgentziako teoria: “*Gangs and Counter-gangs*” (1960) eta “*Low Intensity Operations: Subversion, Insurgency and Peacekeeping*” (1971). Intentsitate ahuleko operazioak liburu argitaratutako urte horietan bertan jarri zituen praktikan Irlandan. Jarraitzaile zorrotzak izan ditu mundu guztian, Espainian barne.

Kitson jeneralaren laborategia

1972-74 urteak izan ziren Ipar Irlandako gatazkan odoltsuenetakoa. Garai horretan ekin zioten Ulsterreko lealisten beren arerio politikoak errito estiloko tortura bidez hiltzeari. Sona handikoa gertatu zen 1973ko hilketan bat, Paddy Wilson politikari katolikoa eta haren laguna Irene Andrewsena. Jenkins soziologoak idatzi du militar ingelesek sortu nahi izan zutela halako lotura bat jendeen buruetan izugarrikeria horien eta sorginkerien artean.

Soziologoari informaziook berretsi dizkion John Colin Wallace ez da ezezaguna. 1943an sortua, armadan kapitain graduaino iritsia, gerra psikologikoan egin zen aditu eta 1970ko hamarkadako urte gogorretan Londresek horretarako prestatutako ekipoaren buru aritu zen. Bera omen zen Ulsterreko natibo bakarretakoa ekipo bereziko ofizialetan, hori ere bere alde.

Gerra psikologikoa zen ingelesek Ipar Irlandako matxinada itotzeko



antolatutako kontraintsurgentziazko estrategia zabalaren osagai. Oraindik bizi den eta inork moles-tatu ez duen Frank Kitson jenerala eduki zuen buru.

ARGIAko ekipoa 1985ean argi-taratzen hasi zen *Larrun* aldizkariak bigarren zenbakian dossier zabala eskaini zion gaiari: “Irlanda, gerra bereziaren laborategia”. Interneten irakurgai dago. Hartan adierazten zenez, frantsesek Vietnamen eta Aljerian antolatutako estrategia kontraintsurgentetik edan zuen Kitson ingelesak eta hortik bazkatu ziren gero munduko beste armada asko, tartean Espainiakoa, 1980ko hamarkadan gaiotako arduradun zeukala Andres Casinello jenerala.

Kitsonen aginduetara aritu zen

garaian, ordea, Colin Wallacek izan zuen beste operazio bereziago baten berri. *Clockwork Orange* izenarekin, Britainia Handiko militar eskuindarrenak ari ziren konspiratzen errepublikanoekin negoziaketen bidea irekitzeko asmoren bat zuten politikariak izorratzeko, izan laborista edo kontserbadore.

Bigarren eskandalu bat ere haizatu zuen Wallacek: Kincorako mutikoen eskolako abusuak. Berak salatuaren arabera, Ipar Irlandako poliziak bazuen eskolako buru pedofiloen desmasien berri, baina ez zuen deus egin arduradunetako bat poliziaren eta zerbitzu sekretu militarren laguntzailea zelako.

Bi kontuez libreago mintzatzeko utzi zuen armada Wallace kapitai-

nak, baina laster aurkituko zen ondorioek harrapatuta. Alde batetik sekretu militarrek kazetariei jakinaraztea egotzi zioten. Okerragoa izan zen bigarren zepoa: Kincorako pedofiloen istorioak zabaltzen hasita laster, 1980an, Wallaceri egotzi zioten lankide baten senarra hil izana.

Hiltzailatzat kondenaturik bost urte espetxean eman ondoren lortu zuen kasua berriro aztertzea eta azkenean libre geratu zen. Fama handiko kasu hartaz Paul Foot kazetariak idatzi zuen “*Who Framed Colin Wallace?*” (Nork jarri zion tranpa Colin Wallaceri?) liburua. Footek hasieran uste zuen Wallace gezurretan ari zela, Londresko militarrek esaten zuten moduan gizona polizia xume bat besterik ez zela, baina ikertu ahala ohartu zen eliteko ofizial izana zela, Wallacek berak aldarrikatzen zuen moduan.

Espetxetik irtendakoan, Wallacen lekukotasuna baliatu dute Ipar Irlandako masakrerik larrienetako bat argitzeko. Hamabost hil ziren –gizon, emakume eta haur– The McGurk’s Bar ostatuan lehertutako bonbarekin. Amona han hil zioten Ciarán MacAirtrek 2012ko liburu batean argitu zuen bonba paramilitar unionistek jarri zutela, ez IRAk, militar ingelesek esan bezala. Hitzaurrea Colin Wallacek egin zion.

Militarrak orain aitortu dituenak fikziozko film batean jarriz gero, ikusleek esango lukete gidoigileei eskua arinegi joan zaiela. Magia beltza antiterrorismoan, nork sinetsi... ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com

